



***2020-2021 ikasturtea***  
***Curso 2020-2021***

## 2020-2021 ikasturtearen hasiera eta perspektiba

Ezer argi izan behar badugu, martxotik gaurdainokoa, zera da: pandemiak gure izaera ahula erraz agerian uzten du. Beraz, **umiltasuna gure jarrera konstantea izan behar da**. Baina, jokabidean ezin gintezke beldurti izan, zuhurrak baizik.

Bestalde, argi dago pandemiak ekonomian eta enpleguan ekarri duen kalapita ez dadin berriro suertatu, agintariak hobeto zaindu behar izango dutela ustekabeen sor litekeen kutsatzea, egitura ekonomikoa eta soziala lurra jotzetik libratzeko. Horrek, antza, ekar dezake **etxeratze totala ekiditea eta selektiboagoa izatea**.

Edonola ere, aurreko hilabete hauetan zehar gure bizitza baldintzatu duten bi faktore nagusik geroan nola jokatu duten **ez dakigu**. Lehenik, COVID-19 delakoaren kutsatze eboluzioa nolakoa izango den inork ez daki. Eta segidan esan beharra dago eboluzio horrek botere publikoa kudeatzen dutenen aldetik eragingo duen erabaki hartzea ezin dugu aurreikusi.

Panorama honen baitan Zuzendaritzak 2020-2021 ikasturteko helburuak eta horiek lortzeko antolaketa ideiatu eta planifikatu ditu.

## 2020-2021 ikasturtea enfokatzeko printzipioak eta jarraibide komunak

Zuzendaritzak ondokoak azpimarratzen ditu:

1. **Apaltasuna eta irtenbidean lankidetzatza.** Alegia, covid-19 pandemiak gure ezagutza mugatua denez eta horrek zalantzazko egoera eragiten digunez, umiltasunez jokatzera, errudun bila ez aritzera eta soluzio kolektiboan lankide izatera garamatza, balore kooperatiboak aurretik ipinita.
2. **Konfiantzaren pedagogia egoera honetara ekartzea.** Alegia, nor bere buruan, besteengan eta ingurunean konfiantza lantzea eta konfiantzaz jardutea. Ikastolan landutakoaren inpaktua etxean eta gizartean bilatzea.
3. **Aniztasunari neurri askotarikoak, doituak eta malguak.** Alegia, ikasturtea abiatzean, ipar bakarra den kontziliazioa eta pertsonagarapena lotzea adin, pertsona eta eraikin aniztasunari, hori ahalbidetuko diguten jarraibide komun batzuen bidez eta neurri praktikoko doituaz. Beti ere, unean uneko egoera eta bilakaerarekiko malgutasuna erakutsi ko dugu.
4. **Jarraibide komunak eta tokiak tokikoak sistematizatzea.** Alegia, ikastolan eta ikastolatik kanpo (etxean, lagunartean, gizartean ...) nagusitu behar diren oinarritzko jarraibideak eta funtsezko neurriak ikasturtearen lehen egun eta asteetan zehar sistematikoki landuko ditugu, lehentasunezko curriculum gisa.
5. **Ikastola barruko kontratu soziala berrestea.** Alegia, Zuzendaritzak aurrez pentsatu eta formulatu dituen printzipioak, jarraibideak, neurriak eta hori guztiaren egokitzapena / doikuntza landu, adostu eta erabaki behar dira Kooperatibaren barruan, irakasleguraso arteko interakzioaz eta gobernu-organoen jardunaz.
6. **Jarraibide komunak ARIZMENDI osoan aplikatzea.** Hain zuzen:
  - 6.1. Ikaskuntzaren alde presentziala lehenetsiko da eta on-line moduarekin konbinatuko da, adinen eta beharizanen arabera.
  - 6.2. Iraileko egunak eta asteak, bereziki lehenak, erabiliko dira osasun neurriak sistematizatzeke (jokabidean inpaktua),

argudiatzeko (ulertzean inpaktua), gunee barruko mugimenduak ohituretara ekartzeko eta on-line moduak menperatzen ez dituztenekin lanketa intentsiboa egiteko. Denon marko mentalean inpaktua bilatu behar dugu.

6.3. Etxetik ikastolara abiatu aurretik,

- ikasleak (eta tutoreak) covid-19ren sintomarik ez duela egiaztatzea. Alegia, osasuntsu dela konprobatzea. Susmorik izanez gero, ikaslea etxean geldituko da eta ikastolaren jakinean ipiniko da.
- ikasleak (eta tutoreak) musukoa dakarrela segurtatzea. Salbuespen bakarra: Haur Hezkuntzako ikasleak.

6.4. Etxetik ikastolarako bidean musukoa erabiltzea ibilbide osoan.

6.5. Ikastolara sartzean, musukoa jarrita, eskuak garbituko dira.

6.6. Ikastolan gehienez bi orduko / bi ordu eta erdiko saioen bidez arituko dira haurrak dagokien espazioan. Saio bakoitzaren ostean, irakaslea gidari dutela aire libreira irtengo dira eta erabilitako espazioa aireztatuko da ordu laurdenez, behintzat, espaziora berriro sartu aurretik. Ikastolara berriro sartzean, eskuak garbitzeko prozedura errepikatuko da.

6.7. Komunak erabiltzeko arau espezifikoak izango dira eta komunak erabili ostean espaziora itzultzean eskuak garbitzeko prozedura errepikatuko da.

6.8. Balizko edo baieztatutako covid-19dun ikasle kasua familiarekin landuko da, bai osasun egoera jarraitzeko, baita ikaskuntza-prozesuaren arrakasta bermatzeko ere.

6.9. Kutsatzearen hedapena ekiditeko, gure eraikin guztiak sektoreka antolatuko dira (ikasle talde, solairu, sarrera-irteerak ... ) ARIZMENDI ikastolaren guneen arabera eta bertan diren ikasle, guraso eta profesionalen arabera osasun neurriak aurreikustea eta zaintzea.

6.10. Irailaren bukaeran eta urriaren hasieran gurasoekin irakasleek egingo dituzten bileretan jarraibideok eta gunee bakoitzaren neurri propioak berriro landuko dira eta, badagokio, doituko dira.

Autobusa eta Jangela zerbitzuetarako arau espezifikoak baliatuko dira.

**7. Jarraibide komunak tokian tokiko guneeen errealitateari egokitzea.** Alegia, neurri espezifikoak (ikasle, guraso eta profesionalentzat) autogestionatuko dira gunee osatzen duten kideen artean.

**2020-2021 ikasturteko hasiera datak****HAUR HEZKUNTZA****Irailak 1 (Egutegi laborala)**

Jose Arana  
Basabeazpi  
Umezaintza  
Uribarri  
Olarte

**Irailak 8 (Egutegi eskolarra)**

Jose Arana  
Basabeazpi  
Olarte  
Umezaintza  
Santa Teresa

**LEHEN HEZKUNTZA - Irailak 8**

Almen  
Arimazubi  
Gazteluondo  
Santa Teresa

**DBH 1-2 -Irailak 7**

Almen  
Gaztelupe

**DBH 3-4 eta Batxilergoa - Irailak 14**

Almen  
Gaztelupe

**OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA****Irailak 8 (1. maila) eta irailak 9 (2. maila)**

Zaldibar

**LANBIDE HEZIKETA****Irailak 14 (2. maila) eta irailak 15 (1. maila)**

Ferixalekua